

ALDARRIKAPEN TAULA

ENPLEGU DUINA / LANGABEZIARI AURRE EGIN

- **35 orduko** lanaldia.
- Lanaldi partzial inposaturik ez!
- Ordu estrarik ez! **Lana eta ondasuna banatu!**
- Malgutasun neurriei ez! Minijob-ek gure esplotazioa areagotzen dute.
- Lanbide arteko gutxieneko **soldata 1200 euro**.
- **Lan osasuna** gure eskubi-dea da, errespetatu dezatela!
- **Lan erreformei** zein negoziaketa kolektiboaren erreformari **ez!**
- Langabezia egoerak irauten duen bitartean **langabezi subsidioa bermatu**.
- Laguntzak jaso ahal izateko **gurasoen etxetik kanpo** erroldatua egotera behartzen gaituzten baldintzak ezabatu.

PRAKTIKALDIAK IKASTEKO!

- Ikasten ari garen bitartean:
- Lanpostu ezberdinetan **formazioa** jaso behar dugu.
 - Formazioak ez digu gasturik suposatu behar, **dietak eta bidaiak ordaindu**

behar dizkigute.

- Lantokietan praktiketan egondako denbora **kotizatzea**.
- Lanpostua **ordezkatzeko** praktikei **ez!**

Lan merkatura sartzen garenean:

- Egun indarrean dauden **Prestakuntza zein Praktika kontratuak duindu**: lan berdina, soldata berdina; formaziorako balio dutela bermatu; praktiketako kontratuen amaieran kontratu horiek behin betiko lan kontratu bihurtzea sustatu.

BEHARTURIKO EMIGRAZIORIK EZ!

Gazteok gure etorkizuna garatu ahal izateko gure herria uztera kondenatzen gaituzten neurriei aurre egiteko:

- Gazteon lan merkaturatzea ahalbideratuko duen **enplegu politika**.
- **Errelebo kontratua** bultzatzeko neurriak.
- Kanpora enplegu bila joandako gazteen **itzultze politika**:

- atzerrian dauden

gazteen **saretzea**.

- atzerrian lan egin dena **itzultzerakoan**

kotizatutzat hartzea.

- dirulaguntzak jasotzeko sortzen diren **oztopoak ezabatzea**.

AUKERA BERTINTASUNA

Aniztasunak (genero aniztasuna, aniztasun sexuala, jatorri aniztasuna, ideologia aniztasuna...) errespetatu, balioan ipini eta **diskriminazio egoerak gaitzetsi eta borrokatuko** ditugu.

- Lan munduan: sarbidean, promozionatzerakoan, formazioan... aukera berdintasuna.
- **Lan berdina soldata berdina**, soldata diskriminaziorik ez!
- Sistemak ezarritako **sexuen arabera lan banaketarekin amaitu**.
- **Etxeko** lanen zein **zaintza lanen aitortza**.

GURE LANAREN JABE

Gazteok gure lanaren jabe izan nahi dugu, **ekintzailetasuna-**

ren alde egiten dugu, baina ez sistemak bultzatzen duen ekintzailetasun ereduaren baitan. **Gure lana autogestionatzeko** ekintzailetasun militantea aldarrikatzen dugu eta egungo eredu iraultzea eta aldatzea helburu duen ekonomia eredu horretan gure **ekarpena egiteko prest** gaude.

EUSKARA LAN HIZKUNTZA:

- **Euskaraz lan eta bizi** nahi dugu.
- **Euskara lan hizkuntza** izateko bermea aldarrikatzen dugu.

HEMEN LAN EGIN, HEMEN ERABAKI

Euskal Herrian lan egiten badugu, **Euskal Herriko eragileok gara gure lanari buruzko legedia diseinatu, erabaki eta garatu behar** dugunok.

- **Lan harremanetarako euskal esparrua**, eremu sozio-ekonomikoan erabakitze eskubidea gauzatzeko bitartekoa!

PREKARIETATEA ALDARRIKAPEN



ZERTARAKO

**Herriz herri
eta lantokiz lantoki
borrokak pizteko,
esplotaziorik
gabeko EH eraikitzeko
ekarpena egiteko**

Gazteok bizi dugun egoera prekarioari aurre egiteko tresna bezala jaio da eskuartean duzun aldarrikapen taula. Gure lan baldintzak hobetzeko borrokan urratsak emateko tresna da, beraz, eta norabide argia du gainera: esplotaziorik gabeko espazioak irabaztea.

Esplotatzen gaituzte. Gure lan indarraren bidez sortutako aberastasuna inolako lotsarik gabe lapurtzen digute. Eta ez hori bakarrik, gure esplotazioa mantentzeko eta bizi baldintzak okertzeko neurriak inposatzen dizkugute, bata bestearen atzetik. Egoera honetan gure bizitzaren jabe izateko eskubidea ukatzen digute, gure etorkizuna zalantzan jarriz. Horregatik gaude egoera prekarioan, esplotazio harremana muturrera eraman dutelako, soldata miserableak ordaintzen dizkigutelako, kontraturik gabe lan egiten dugulako, emigratzera behartzen gaituztelako... prekarietatean gaude esplotatzen gaituztelako.

Gure iparra esplotaziorik gabeko espazioak eraikitzen joatea da. Kapitalari espazioak irabazi behar dizkiogu, egungo lan harremanean arrakalak sortuz, lan baldintzak hobetuz, ordu estrak egiteari utziz, praktikaldiak duinduz edo gure lana autogestionatzeko alternatibak eraikiz. Soilik horrela lortuko dugu egiturazkoa den egoera prekarioa irauli eta gure bizitzen jabe izateko errealitatea sortzea.

Borrokaz lortuko dugu, gazteok bagoaz esplotaziorik gabeko Euskal Herria eraikitzen!



GAZTE BORROKATZEKO TAULA



ZERGATIK

**Gure egoera
prekarioa
onartzeko prest ez
gaudelako**

**Borrokarako
garaia delako**

